

IKUSMIRAN

Gaur igandero bezala, gaueko festa handi baten biharamuna da. Atzo gauean euria egin zuen eta dena bustita dago. Nire gurasoek esan didatenez, festa hau aspalditik egiten da lokal honetan, eta nahiko festa ospetsua denez jende dezente etortzen da larunbat gauero festara. Ni festa egiten den lokalaren pare-parean dagoen etxe batean bizi naiz, nire ustez etxe ederra da. Hiru solairukoa, baina nire gela bigarrenean dago. Bigarren solairutik ikusten da ondoen lokala, lokalaren lehenengo solairua oso ondo ikusten ez bada ere. Batzuetan lokalaren lehenengo solairua ikusteko etxeko lehenengo solairura jaitsi behar izaten dut. Beno, ez badizuet esan ere, 15 urte ditut eta Kepa dut izena, izen benetan polita. Gaur ere, etxean bakarrik, nire gurasoak lanean daude eta. Ni, nire ohitura den bezala, nire gelako balkoian nago, nire prismatikoekin, erne-erne.

Festa egiten den lokala oso originala da, niri gustatzen zait. Ia-ia ez du paretik, dena kristalera da, kanpotik barruko guztia ikusten da. Bi solairukoa da, baina festarako lehen solairua bakarrik erabiltzen dute, bigarren solairuan, minutu gutxi barru etorriko den garbitzailearen erratz eta lan tresna guztiak daude. Baina “aldagela” jartzen duen ate bat ere badago, garbitzailea hor aldatzen da igandero. Nonbait norbaitek ikusteko beldurra du. Garbitzailea, oso neska jatorra da eta hamarretan sartzen da lokala garbitzera. Eta momentu honetan, bi minutu falta dira hamarretarako. Garbitzailea bere kotxe horian etortzen da lanera eta gero, beste ezer egin baino lehen bigarren solairura igotzen da, hori guztia buruz dakit. Izan ere, zenbat aldiz egon ote naiz ni dena aztertzen? Eta nire lagunek galdetzen didaten bezala, zuek galdetuko duzue:

-Ez al zara aspertzen igande goizero hemen egoteaz?

Ba ez, ez naiz aspertzen, zuek kontrakoa uste baduzue ere, igande goiz guztiak desberdinak dira, eta ziur nago gaurkoa ere desberdina izango dela.

Hamarrak dira. Badator garbitzailea. Lokala beti bezain zikin dago: koka-kola botilak alde batetik, baso puskatuen kristalak bestetik... Garbitzailea azken bost urteetan bezala etorri da lokala garbitzera. Sartu da lokalera, aurpegi oso arraroa jarri du, baina ez doa gorantz! Zerbait arraroa gertatzen da, baina hemendik ez dut ikusten! Beheko solairura joan beharko dut.

Beko solairuan nago. Hemendik ederki ikusten da dena. Zapata batzuen oinatzak daude, baina likido gorri batez markaturik. Oso arraroa da.

Garbitzaileari jakin-mina sortu zaio:

-Nondik ote dator likido gorri hori? Zer ote da?-galdetu dio bere buruari.

Eta oinatzei jarraituz oinatzak non hasten diren ikustera doa. Eta hara non hasten diren oinatzak! Oinatzak hasten diren lekuan, eszenatokiaren azpian, zortzi bat urteko neskatilea bat dago lurrian etzanda, tripa odolez betea duela eta

begiak itxirik dituela. Garbitzaileak neskatoa ikusi duenean tripa bueltaka hasi zaio eta bihotza eztarriraino igo zaio. Ezin du sinetsi.

Eta izan ere ez da harritzekoa. Niri ere gosari guztia eztarriraino igo zait.

Okerrena pentsatu du: hilda zegoela. Beldurra alde batera utzita, neskatoa esnatzen saiatu da alde batetik eta bestetik helduaz, eskuak odolez gorri-gorri jarri dituelarik. Baina alferrik izan da. Ez dauka ezer egiterik. Horregatik, egin dezaken bakarra ertzainei deitzea izango dela erabaki du. Eta halaxe egin du, ertzainei deitu die. Garbitzaile gizajoa, laguntzera joango naiz.

Iritsi naiz lokalera, garbitzaileak atea ireki dit eta gertaturikoa kontatu diot. Sartzeko esan dit eta sartu egin naiz.

Bost-hamar bat minutu pasa dira ertzainei deitu dienetik, eta ertzainak iritsi dira. Aurrena neska hilik edo bizirik dagoen ikustera joan dira. Baina neska hilik dago. Garbitzailea ere elkarrizketatzera dihoazte, izan ere eskuak odolez beteta dituela susmagarrietako bat da. Gainera kasu asko daude deitzen duen pertsona bera izaten dela erruduna. Baina dena azaldu dien era ikusita susmagarrien listatik ezabatzea erabaki dute.

Orain, berriz ere neskarengana habiatu gara, aztarnak aztertzeke. Aztarna horiek non bukatzen diren aztertzeke goaz. Aztarnak jardineko atean bukatzen dira, hortik aurrera ez dago aztarna horien arrastorik. Benetan gauza arraroa. Antza denez ertzainei ere arraroa egin zaie, aurpegi arraroa jarri baitute. Jardina aztertzen hasi gara, zerbait bilatzeko asmoarekin. Ez dugu ezer garrantzitsurik aurkitu. Gainera belarra bustia egoteak are eta zailagoa egiten zuen bilaketa lana. Ez dakit gainontzean konturatuko ziren, baina belarra zapalduta dago lerro luze baten forman.

-Belarra zapalduta dago lerro luze baten moduan.-esan dut nik.

-Halaxe da, belarra zanpatuta dago. Baina orain galdera da: zerekin dago zapalduta belarra?- esan zuen beste ertzain batek.

-Baliteke...- esan du ertzainen buruak bat-batean.

Garbitzailea pentsakor jarri da, eta esan du bat-batean:

-Esaten nuen ba nik, zapaldu hauek noizbait ikusita nituela!

- Zer gertatzen da?- galdetu diote denak batera.

-Txirringa batenak dira, hiltzaileak txirringa hemen utziko zuen, gero ihes egiteko.-garbitzaileak.

-Begira! Paretan marka batzuk daude!-esan dut konturatu bezain laster.

-Bizikletaren manilarrarenak izango dira.-esan du ertzain buruak.

Egia esan niri hori ez zait okurritu, baina pentsatzen jarrita manilarrarena izango da, bai. Baina hori bakarrik jakinda ez goaz inora. Horrekin bakarrik ez dago hiltzailea harrapatzerik. Ertzainek jardina arakatzen jarraituko dutela

erabaki dute, eta garbitzaileak eta nik ere hori erabaki dugu. Bakoitza alde batetik joan da.

Lore asko daude jardinean eta zaila da zerbait bilatzea.

-Etorri denak!-esan du garbitzaileak.

Denak beregana habiatu gara eta bilaturikoa erakutsi digu. Eskutitz gris bat da, nahiko zikina dago kanpotik, edarien tantak ditu, bustita ere badago. Ireki egin dugu eta irakurri ere bai. Letra batzuk gorriz daudelarik, hau jartzen du idatzirik:

EZ DAUKAZUE LOTSARIK? NESKATXA EDER BAT HILIK
AZALDU DA ETA EZ ZARETE GAI ERRUDUNA NOR DEN JAKITEKO.
HORRELA EZIN DA BIZI. PAILAZO KAKATI BATZUK ZARETE.

AGUR. HURRENGO HILKETA ARTE

Hori da irakurri dugun mezua. Eta konturatuko zineten bezala gorriz zeuden letra guztiak irakurrita mezu hau osatzen da:

ERTZAINZA PIKUTARA.

Hori da hiltzaileak eman izan nahi digun mezua. Gainera beste hilketa bat ere egongo da, eskutitzaren bukaeran “hurrengo hilketa arte” jartzen baitzuen. Horrek esan nahi zuen ertzaintzak azkar ibili beharko zuela hiltzailea harrapatzen.

Orain arte daukagun datu bakarra hiltzaileak bizikleta ibili ohi zuela da, baina horrek ez digu ezer esaten, jende asko ibiltzen baita bizikletarekin. Jardina arakatzen jarraitzea goaz.

Lore batzuen azpian zerbait marroia ikusi dut eta hartzera joan naiz. Ez nago oso ziur pilotariak pilota gogorak minik ez egiteko erabiltzen duten takoa bezalakoa den ala ez. Baina baietz uste dut. Gainera G.G inizialak ditu. Izan ere niri ez zait eskupilota asko gustatzen, baina antza denez hiltzaileari bai.

-Etor zaitezte denak! Begira!- esan dut denak etor daitezen.

-Zer?-ertzain batek.

-Zer da eskuan daukazun hori?-galdetu dit garbitzaileak.

-Uste dut pilotariak erabiltzen dituzten tako horietako bat dela.-azaldu diet beste guztiei.

-Bai arrazoi duzu.-ertzain buruak.

Eta poltsa batean sartu du, laborategira eramateko. Baina berriro ere jardina arakatzen jarraitu dugu denak.

Ordu erdi daramakigu lorategian eta ez dugu proba gehiagorik aurkitu. Denak bukatutzat eman dugu jardineko araketa. Baina lokalera sartzera goazenean ertzain buruak deitu digu. Zerbait bilatu du. Musika CD bat da eta “Gatibu” jartzen du. Baina cd-aren alde batean behatz marka batzuk daude. Cd-a ere poltsa batean sartu du.

Laborategira goaz. Kotxean takoataz hitz egin dugu eta hiltzailea udal pilotalekuan ikastaro bat egiten ari dela edo bestela afizionatu mailan jokatzen duen pilotaria dela pentsatu dugu.

Laborategira iritsi gara. Takoa aztertzen hastea erabaki dugu. Ertzaintzako ikertzailearik onenak takoa hartu eta atzeko aldean begiratu dio. Eta azkeneko aldiz ostegunean erabilia dagoela esan digu.

Orduan ostegunetan entrenamendua dauka. Eta ostiraletan berriz ez dauka entrenamendurik, bestela azkeneko aldiz ostiraletan erabiliko zuen takoa. Gero eta gertuago gaude hiltzailea harrapatzeko, gero eta pista gehiago dugu.

Orain cd-ak dituen hatz markak aztertzen hastera doaz, cd hiltzailearena izango dela pentsatzen dugu, jardinean ez baita jende asko ibiltzen.

Cd-a aztertzen hasi da ikertzailea, baina hatz aztarnak ez daude oso garbi eta hiru pertsonenak izan daitezke, hauek dira pertsonen izenak:

Xabat Hernandez, Gorka Goikoetxea eta Gaizka Gonzalez.

Xabat ezin daiteke izan, ez ditu G.G inizialak eta gainera herri honetatik oso urruti bizi da. Bietako bat da, Gorka edo Gaizka.

Udal pilotalekura joatea erabaki dute ertzainek eta hara joan gara denak. Iritsi gara pilotalekura eta entrenatzailearekin hitz egitea erabaki dugu. Entrenatzailearekin hitz egin dugu eta ikasleen lista bat emateko eskatu diogu. Ertzainei ezetz ezin die esan eta oztoporik jarri gabe lista eman digu.

Izen guztiak aztertu ditugu eta listan azaltzen den izen bakarra Gorka da, gainera astearteetan eta ostegunetan entrenatzen du. Dударik gabe bera da hiltzailea. Bere helbidea lortu dugu eta bere etxerantz goaz, bera atxilotzera.

Etxean zegoen, eta atxilotu egin dugu. Ertzainaren kotxe patruilan eraman dute komisaldegira.

Harro nago nire buruarekin, laguntza handia eman diot ertzaintzari. Askok ikasi dut beraien lanari buruz, eta asko gustatu zait. Gainera niri beti gustatu izan zaizkit poliziei buruzko historiak, baina orain are gehiago gustatzen zaizkit. Handitan ertzaina izan nahi dut, ea lortzen dudan ertzaina izatea! Agur!